

EUSKADIKO IGERIKETA FEDERAZIOA
FEDERACIÓN VASCA DE NATACIÓN

KIROL DIZIPLINAKO ERREGELAMENDUA

I. TITULUA

DIZIPLINA ARAUBIDEA

I. KAPITULUA

Diziplina Araubideko eta Lehiaketako Xedapen Orokorrak

1. artikulua.- Aplika daitekeen araudia.

EIF-FVN Euskadiko Igeriketa Federazioaren diziplina-araubidea egokitu egin beharko du Erregelamendu honetan, Federazioaren estatutuetan, kirol-diziplinari buruz izaera orokorrean ezarritako diziplina-araudian eta horiek osatzen, garatzen edo ordezkatzeko dituzten arauetan xedatuta dagoenera.

Erregelamendu honetan araututako kirol-diziplinako araubidea burujabea da erantzukizun zibil edo penalariekiko, bai eta kasu bakoitzean egokitzen joko den legeriak arautuko duen lan-harremanetatik eratorritako araubidearekiko ere.

2. artikulua.- Aplikatzeko eremu objektiboa.

1.- Kirol-diziplinaren esparruak bere baitan hartzen ditu joko-arauak eta kirol-arau orokorrak haustea, hain zuzen, jaso egiten ditu ondorengo lege eta arau hauetan tipifikatuta dauden arau-haustek: egun indarrean dagoen Kirolari buruzko Legea, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren Kirol Diziplinari buruzko 1989ko urtarrilaren 10eko 7/1989 Dekretua eta gainerako garapen-xedapenak, EIF-FVNren estatutu eta erregelamenduak, kasuan kasuko lehiaketetako araudiak edo zirkularrak, eta honako Kirol Diziplinako Erregelamendu hau.

2.- Jokoarekiko edo lehiaketarekiko arau-haustetatzat hartuko da joko, proba edo lehiaketa egiten den bitartean ohiko garapena urratzen, eragozten edo oztopatzen duen edozein ekintza edo ez-egite.

3.- Kirol-jokabidearen aurkako arau-haustek dira, aurreko paragrafoan jasota ez egon arren, kirol-harremanen garapen normalari kalte edo kalte egiten dioten ekintza edo ez-egite guztiak.

4.- Era berean, EIF-FVNri dagokio, Kirol Diziplinako eta Lehiaketako Federazio Batzordearen bitartez, EIF-FVNko kirol-diziplinetako Lehiaketako Erregelamenduak edo

lehiaketa bakoitzeko araudiak/zirkularrak aplikatzearen ondorioz eragingo diren gorabehera guztien berri izatea eta horiekiko kontu guztiak ebaztea, bai eta horiek behar bezala interpreta daitezen irizpide egokiak ezartzea ere.

3. artikulua.- Aplikatzeko eremu subjektiboa.

1.- Lurraldeetako federazioek diziplina-ahalmena ezartzen dute beren egitura organikoa osatzen duten pertsona guztien gainean, kirol-klubetan eta kirol-elkarteetan izena emandako kirolarien eta teknikarien gainean, kirol-klub eta kirol-elkarte horien gainean eta, oro har, federatuta izanik kirol-modalitatea praktikatzen duten pertsona guztien gainean.

2.- Lurraldeetako federazioek, aipatu berri ditugun eskumenen esparruan, lehen auzialdian honako kasu hauetan baliatzen dute eskura daukaten diziplina-ahalmena:

a) Baldin eta lurralde esparruko maila, izaera edo gradua duten lehiaketak edo probak badira soilik.

b) Baldin eta lehiaketan edo proban kasuan kasuko Lurraldeko federazioak izapidetu dituen federazio-lizentziak dauzkaten kirolariek soilik parte hartzen badute.

c) Baldin eta lehiaketa edo proba sustatzea eta antolatzea tokiko Lurralde Federazioari badagokio, beste edozein federaziotan izapidetutako lizentziak dauzkaten kirolariek parte hartu arren, eta emaitzak ofizialki ez badira homologatuko erkidegoaren edo estatuaren esparruan.

3.- EIF-FVNri dagokio kirol-diziplinako ahalmena erabiltzea bere egitura organikoa osatzen duten erakunde eta pertsona fisiko guztien gainean: Klubak, kirolariak, teknikariak, zuzendariak, epaileak, arbitroak, laguntzaileak eta ordezkari teknikoak, lurralde-federazioen egitura organikoaren gainean, eta, oro har, federatuta izanik norbere kirol-modalitateak garatzen dituzten pertsona eta erakunde guztien gainean.

4.- Arestian aipatu dugun esparruan, artikulua honetako 2. puntuan jaso gabe gelditu diren kasu guztien gainean lehen auzialdian duen ahalmena baliatuko du, eta bigarren auzialdian, honako Erregelamendu honetan eta kirol-modalitate bakoitzaren estatutu eta erregelamenduetan aurreikusitako kasuetan.

5.- Organo eskudunak dira EIF-FVNri, Kirol Diziplinako eta Lehiaketako Federazio Batzordeari, epaileei eta arbitroei dagokien diziplina-ahalmena erabiltzeko. Azken horiek probak edo topaketak garatzen ari diren bitartean erabiliko dute.

Diziplina-ahalmenak bere legezko titularrei eskuduntza ematen die egitateak iker ditzaten eta, egokia baldin bada, erantzuleztat jo izan direnei egokitu zaizkien zehapenak ezar diezazkieten.

4. artikulua.- Aplikatzeko lurralde eremua.

Ordenamendu honen arabera, zehatu egin daitezke Euskal Autonomia Erkidegoaren barruko lurralde barruan egindako arau-haustea.

Orobat, Erkidegoko lurraldetik kanpo egindakoak ere zehatu ahal izango dira, baldin eta ondorengo inguruabar hauetakoren bat gertatzen bada:

- a) Arau-hausleek EIF-FVNk ematen duen federazio-lizentzia edukitzea.
- b) Arau-hausleak EIF-FVN ofizialki ordezkatzan ari diren pertsonak izatea eta haren egitura organikoan partaide izatea.

5. artikulua.- Kirol Diziplinako eta Lehiaketako Federazio Batzordea.

EIF-FVNk bere esku daukan diziplinarako eta lehiaketarako ahalmena gauzatuko du, Kirol Diziplinako eta Lehiaketako Federazio Batzordearen bitartez. Batzorde hori hiru kidek osatuko dute. Kide horietako bik Zuzenbideko lizentziadunak edo doktoreak izan beharko dute, eta besteak, kirol-diziplinen araudiak ezagutzen dituen aditua izan beharko du ezinbestean. Kide horietako inork ezingo du lurralde-federazioetako edo EIF-FVN federazioetako zuzendaritza-batzordeetan posturik bete.

Kirol Diziplinako eta Lehiaketako Federazio Batzordeko kideak EIF-FVNko lehendakariak izendatuko ditu, Federazio Batzordeko lehendakaria batzordekideen arteko adostasun bidez izendatuko da, eta, adostasunik ez baldin badago, EIF-FVNko lehendakariak izendatu beharko du.

Kirol Diziplinako eta Lehiaketako Federazio Batzordeak idazkari bat izango du, bilkuretan parte hartuko duena, hitzarekin baina botorik gabe; hark egingo du bileren akta, eta hartutako erabakien berri emango du. Idazkaria izendatzea EIF-FVNko lehendakariari dagokio.

Kirol Diziplinako eta Lehiaketako Federazio Batzordeko kideek EIF-FVNko lehendakariaren epealdi berean beteko dituzte euren eginkizunak.

Baldin eta lanposturen bat hutsik geratzen bada, EIF-FVNko lehendakariak postuko langilearen ordezkia izendatu ahal izango du, bai kasu horretan, bai Batzordea eratzean. Lehendakariak Federazioko Batzarrari jakinarazi beharko dizkio aukeratutako pertsonak eta horiek hautatzeko arrazoiak.

Kirol Diziplinako eta Lehiaketako Federazio Batzordea balio osoz eratuta geldituko da bilkurara kideen gehiengoa bertaratzen denean, eta erabakiak gehiengo soilez hartuko dira. Berdinketa gertatuz gero, lehendakariak kalitateko botoa izango du.

Kirol Diziplinako eta Lehiaketako Federazio Batzordeak aholkulariak izendatu ahal izango ditu haren eskumenekoak diren gai zehatzei buruz, epaia eman aurretik jorratu beharreko

gaia behar bezain zehatz ezagutzeko. Aipatutako aholkulariek txostena egingo dute Batzordeak eskatuta, eta Batzordearen bileretara joan ahal izango dira, hark hala erabakitzen duenean; hitza izango dute, baina ez dute inoiz botorik izango.

6. artikulua.- Tipifikatze-printzipioa eta zehapen bikoitza debekatzea.

Egintza edo ez-egite bategatik ezin izango da zehapenik ezarri, baldin eta ekintza edo ez-egite hori egin aurretik indarraldian dauden xedapenetan arau-hauste gisa tipifikatuta ez badago; era berean, ezin izango da zuzengarririk ezarri, baldin eta arau-haustea egin aurreko arau batean ezarrita ez badago. Beste hainbestean, ezin izango da ezarri dagokion arau-haustea gauzatu baino lehenagotik finkatuta ez dagoen zehapenik.

Ezin izango da gertaera beragatik zehapen bat baino gehiago ezarri, nola eta ez diren ordenamendu honek osagarri gisa ezartzen dituenak, eta zehapena ezartzea adierazten duen kasuetan soilik.

7. artikulua.- Berme prozesalaren printzipioa eta erantzukizun mailak.

Diziplina-araudian aurreikusitako eta horretarako bideratutako prozeduraren arabera soilik ezarri ahal izango dira zehapenak.

Prozedura horretan, bermatu egingo zaizkie interesdunei izendatuko duten pertsonaren bertaratze-eskubidea eta espedientea ebatzi aurreko entzunaldia.

Ebazpenek zehatuko den egitatea tipifikatzea adierazi beharko dute, urratu den araua aipatuz eta jar daitekeen errekurtsioa adieraziz, errekurtsioa zuzentzea nori dagokion eta horretarako ezarritako epea jakinarazita.

Dagokien eginkizuna betetzeko garaian, EIF-FVNko kirol-diziplinako organoek zehapen-zuzenbidearen informazioko printzipioak bete beharko dituzte, eta, kasuan kasuko arau-hausterako gutxieneko eta gehieneko aplikagarriak adierazten baldin badira, zehapena bidezkotzat jotzen duten mailan ezarri ahal izango dute; horretarako, kontuan hartuko dituzte egitateen izaera, erantzulearen nortasuna eta inguruabar larrigarriak edo aringarriak badagoen ala ez.

Aurrekoa gorabehera, aplikatzekoa den zehapena zehaztu ahal izateko, diziplina-organoek arau-haustearen gainerako inguruabarrak baloratu ahal izango dituzte, baldin eta aurretik tipifikatuta ez badaude, hala nola arau-haustearen ondorioa, egitateen izaera, kirolaren aurkako jokabidea hedatzea edo haur edo adingabeen aurrean gauzatu izana.

8. artikulua.- Aldeko atzeraeraginaren printzipioa.

Diziplina-xedapenek atzeraeragina daukate arau-hausleari mesede egiten dioten heinean, nahiz eta xedapen horiek argitaratzean ebazpen irmoa emana izan.

Aldeko xedapenen atzeraeragina ofizioz edo alderdi interesdunak hori gauzatzea eskatuta deklaratu beharko du arau-haustez arduratzeko eginkizunean ari den organoak, edo azken auzialdian ebazpena eman duenak.

Organo horiek izango dute, halaber, aldeko atzeraeragina gauzatzeko beharrezkoak diren neurriak hartzeko eskumena.

Atzeraeragina deklaratzeari edo dagozkion neurriak hartzeari uko egitearen aurka jo nahi izatekotan, honako Erregelamendu honetan ezarritako errekursoak aurkeztu ahal izango dira.

II. KAPITULUA

Diziplina-erantzukizuna

9. artikulua.- Inguruabar aringarriak.

Nolanahi ere, kirol arloko diziplina-erantzukizunaren inguruabar aringarritzat hartuko dira ondorengo hauek:

- a) Berezko damua izatea.
- b) Arau-haustea egin aurretik elkarren jarraian nahikotzat jotako probokazioak jaso izana.
- c) Kirol-bizitzako jarduera baino lehen noizbait zehapena jaso duen arau-hauslea ez izatea.

10. artikulua. - Inguruabar larrigarriak.

- a) Kirol-diziplinako erantzukizunaren inguruabar larrigarritzat hartuko da, nolanahi ere, arau-haustea berriz egitea.

Okerra berregitea izango da egilea lehenago ere ebazpen irmo baten bidez zehatua edo zigortua izan denean, kirol-diziplina larritasun bereko edo handiagoko edozein arau-hauste egiteagatik edo larritasun txikiagoko bi arau-hauste edo gehiagorengatik.

Okerra berregitea urtebetez zehar gertatu dela ulertuko da, arau-haustea egin den uneaz geroztik zenbatzen hasita.

- b) Arau-haustearen ondorioz, Igeriketako kirol-modalitateetako edozeinen irudi onari kalte larriak eragitea.
- c) Arau-haustearekin hirugarrenei kalte ekonomikoak eragitea.

d) Epailearen edo arbitroaren erabakiak berehala ez onartzea, baldin eta epaileari men ez egitea arau-hauste gisa zehatu ez bada behintzat.

e) Egindako arau-hauste baten eraginez, partida edo lehiaketa bat behar bezala ez garatzea.

f) Edozein motako federazio-lizentzia izanda, klubeko zuzendaritzako kide edo klubeko kide izanda ikusle gisa edozein arau-hauste egitea.

g) Nahita jakinaren gainean egin izana.

h) Arau-haustea prezio, sari edo promesa baten truke egitea.

i) Nagusikeriaz abusatzea edo defentsa ahulduko duen bitartekoren bat erabiltzea.

j) Arau-haustea zigorgabetasuna ziurtatzen edo ematen duten pertsonen laguntzarekin gauzatu izana.

k) Egitatea gauzatzean autoritatea iraintzea edo iraina egin zaionari zor zaion errespetua mespretxatzea.

11. artikulua.- Erantzukizuna iraungitzea.

Kirol arloko diziiplina-erantzukizuna iraungitzeko arrazoitzat hartuko dira, nolanahi ere, honako hauek:

a) Erruztatua hil izana.

b) Zehatutako Kluba edo Kirol Federazioa, Erakundea edo pertsona juridikoa legez desagitea, horrekin eragotzi gabe klubeko zuzendarien eta/edo kideen diziiplina-erantzukizunak iraun dezan, egokia den heinean.

c) Zehapena betetzea.

d) Arau-hausteez edo ezarritako zehapenek preskribatzea.

e) Kirolari federatuaren edo auziari lotuta dagoen Kirol Elkartea edo Kirol Klubeko kidearen izaera galtzea. Izaera hori galtzea borondatezkoa denean, balizko iraungitze horrek ondorio etengarriak soilik izango ditu.

Baldin eta hiru urteko epean kirol-diziplinari lotuta izateko egoera berreskuratzen bada, erantzukizuna eteteko denbora ez da zenbatuko ez arau-hausteez preskribatzeko garaian, ez eta zehapenek preskribatzeko garaian ere. Jokamolde bera aplikatuko da erruztatutako pertsonarekin edo erakundearekin, lizentzia eta/edo kuotak edo eduki ekonomikoko beste betebeharrak ez ordaintzeagatik EIF-FVN erakundean baja emango zaionean.

12. artikulua.- Arau-hausteen preskribatzea.

Arau-haustea hiru urtera, urtebetera edo hilabetera preskribatuko dira, aintzat hartuta arau-haustea oso larriak, larriak edo arinak diren; preskripzio-epea arau-haustea egin eta hurrengo egunetik hasiko da zenbatzen.

Preskripzio-epea eten egingo da zehapen-prozedura hasten denean, baina baldin eta, esandako prozeduraren eraginpean dagoen lagunari edo erakundeari egotz ezin dakiokkeen arrazoiren batengatik, prozedura hori hilabetez geldirik balego, dagokion epea luzatuko da berriro, eta preskripzioa etengo da ostera ere, espedientea izapidetzen berriro hasten denean.

Horrek dituen eraginetarako, prozedura bat geldiarazitzat joko da prozedura horretarako aurreikusitako edozein epe agortzen denean soilik, beste eperik abian ez dagoenean eta hurrengo hamabost egun baliodunen barruan inolako probidentziarik gauzatu ez denean.

13. artikulua.- Zehapenak preskribatzea.

Zehapenak hiru urtera, urtebetera edo hilabetera preskribatuko dira, aintzat hartuta arau-haustea oso larriak, larriak edo arinak diren; preskripzio-epea zehapena ezarri zuen ebazpena irmo bihurtzen den egunaren biharamunetik hasiko da zenbatzen, edo, ordurako ezartzen hasia baldin bada, zehapena betetzen ez den egunetik bertatik.

III. KAPITULUA

Arau-haustea eta zehapenak

1. ATALA

Arau-haustea

14. artikulua.- Arau-hausteen sailkapena, larritasunaren arabera.

Larritasunaren arabera, kirol-arloko arau-haustea oso larriak, larriak eta arinak izan daitezke.

15. artikulua.- Arau-hauste arrunt oso larriak.

Jokoaren edo lehiaketaren arauetako edo kirol-arau orokorretako arau-hauste arrunt oso larritzat jotzen dira honako hauek:

a) Agintekeria-abusuak.

b) Ezarritako zehapenak urratzea, isunak ez ordaintzea barne.

Zehapenak betearaztekoak diren kasu guztietan hautemango da arauak urratzea. Araubide bera aplikatuko da kautela-neurriak urratzen direnean.

c) Proba edo lehiaketa baten emaitza prezio baten, norbait beldurraraztearen edo akordio hutsen bitartez aldeztatik aurretik zehazteko gauzatutako jarduerak.

d) Kirolarien, teknikarien, edo zuzendaritzako kideen jokabide, jarrera eta keinu oldarkorrak eta kirolaren aurkakoak, baldin eta epaileei, beste kirolari batzuei, zuzendaritzako kideei eta bertaratu den ikusle jendeari zuzentzen bazaizkie, eta bereziki larriak baldin badira.

e) Jokalariak, taldeak edo ikusleak indarkeriara bultzatzen dituzten kirolariak, zuzendaritzako kideak, teknikariak, epaileak, kirolariak eta bazkideak egindako adierazpen publikoak.

f) Justifikatu gabe Euskal selekzioen deialdietara ez joatea. Egokiak diren ondorioak izan ditzan, adierazitako deialdi horren barruan sartzen dira bai entrenamenduak eta bai probak edo lehiaketak.

g) Kirol-duintasunaren edo kirol-begirunearen aurkako egintza nabarmenak edo publikoak, baldin eta bereziki larriak badira. Era berean, arau-hauste oso larritzat hartuko da izaera horretako gertaeretan okerra errepikatzea eta arau-hauste larriak egitea.

h) Kirol-diziplinen arau teknikoaren aurka materiala edo kirol-ekipamendua manipulatzeko edo aldatzeko, bai norberak egiten baldin badu, bai eta bitarteko pertsona batek egiten baldin badu ere, baldin eta probaren edo lehiaketaren segurtasuna aldarazi badezakete edo pertsonen segurtasuna arriskuan jar badezakete.

i) Probetan, norgehiagoketan edo lehiaketetan jokalaria-zerrenda desegokia osatzea eta justifikatu gabe ez agertzea edo erretiratzea.

j) Kirol Diziplinako Batzordearen ebazpenak ez betetzea.

k) Proba edo lehiaketa bat egitea eragozten duten edo bertan behera uztera behartzen duten protesta, beldurrarazte edo hertsatze banakako, kolektibo edo iskanbilatsuak.

l) Klubean, elkarteetan edo federazioan izandako karguagatik ezagutu diren gaietan isilpeko izaera urratzea.

m) Federazioen, elkarteetan edo klubetan erabakien aurka matxinatzeko egintzak.

n) EIF-FVNko kirol-diziplina guztien edo haietako ordezkari diren pertsonen duintasunaren aurkako jokabide larria izatea.

ñ) Kiroletako edo federazioko agintariak iraintzea edo gutxiestea eragiten duten adierazpen publikoak, bai eta gizarte-hedabideen bidez egindakoak ere.

o) Epaileen, arbitroen, teknikarien, zuzendaritzetako kideen eta gainerako kirol-agintarien aurkako erasoak eta haiek emandako aginduak eta jarraibideak era nabarmenean ez betetzea.

p) Instalazioak, lokalak edo materialak kontserbatzearen aurka azpikeriaz kalte larriak eragitea.

q) Proba, norgehiagoka edo lehiaketa jokatu baino lehenago, jokatu bitartean eta jokatu ondoren ordena publikoa aztoratu ez dadin behar diren prebentzio-neurri guztiak ez hartzea, eta, oro har, jendaurreko ikuskizunetan indarkeria prebenitzeari buruzko 1993ko maiatzaren 21eko 769/1993 Errege Dekretuan ezarritako arauak nabarmen eta larriki ez betetzea.

16. artikulua.- Zuzendaritzako kideen arau-hauste oso larriak.

Aurreko artikuluan ezarritako arau-hauste arrunt oso larriez gain, EIF-FVNko lehendakariaren eta kirol-antolamenduko erakundeetako gainerako zuzendaritzetako kideen arau-hauste espezifiko oso larritzat joko dira ondorengo hauek:

a) Batzar Nagusiaren erabakiak, Hauteskundeetako Erregelamenduetako erabakiak eta gainerako estatutuetako edo erregelamenduetako xedapenak ez betetzea.

Ez-betetze larriak edo garrantzi berezikoak direnak arau-haustetzat joko dira.

b) Federazioko organo elkargokideak legezko epe edo baldintzetan ez deitu izana, sistematikoki eta behin eta berriz.

c) Funts pribatuak edo diru-laguntzak, kredituak, abalak eta gainerako laguntzak oker erabiltzea.

17. artikulua.- Arau-hauste larriak.

Arau-hauste larritzat hartuko dira honako hauek:

a) Epaileek, arbitroek, teknikariek, zuzendaritzetako kideek eta gainerako kirol-agintariek emandako aginduak eta jarraibideak era nabarmenean behin eta berriz ez betetzea.

b) Kirol-duintasunari edo kirol-begiruneari kaltea eragiten dioten egintza nabarmenak eta publikoak, eta, oro har, kirol-arauen aurkako jokabidea, betiere baldin eta horrek guztiak arau-hauste oso larritzat jotakoen izaerarik ez badu.

c) Kirolarien, teknikarien edo zuzendaritzetako kideen jokabide, jarrera eta keinu oldarkorrak eta kirolaren aurkakoak arbitroei, epaileei, beste kirolari batzuei, zuzendaritzako kideei eta bertaratu den ikusle jendeari zuzenduz gero, betiere baldin eta arau-hauste oso larriak ez badira.

d) Egiten den kirol-jarduerarekin edo kirol-eginkizunarekin bateraezintzat jo diren jarduera publiko edo pribatuak egitea.

e) Legezko epe edo baldintzetan federazioko organo elkargokideen deialdirik ez egitea.

f) Aurrekontua eta ondarea kudeatzeko administrazio-arauak ez betetzea.

g) Kiroleko arau teknikoen aurka, kirol-materiala edo kirol-ekipamendua manipulatzeko edo aldatzeko, dela norberak, dela bitartekari baten bidez.

h) Izena emateko erregelamenduaren arabera ezarritako baldintzak betetzen ez dituzten jokalaria behar ez bezala jokalaria-zerrendan sartzea, betiere arau-hauste oso larritzat jotzen ez baldin bada.

i) Probetara, norgehiagoketara edo lehiaketetara justifikaziorik gabe ez agertzea edo horietatik erretiratzea, betiere baldin eta horrek guztiak arau-hauste oso larritzat jotzeko izaezari ez badu.

j) Urte bereko federazio-lizentzia Lurralde Federazio batean baino gehiagotan eskuratzea.

k) Jokoa, proba, lehiaketa, batzarra edo federazio-bilera ohiko moduan garatzea aldarazten duten protesta, beldurrarazte edo hertsatzeak, banakakoak nahiz kolektiboak, edo iskanbilatsuak.

l) Epaileen, arbitroen, teknikarien, zuzendarien eta gainerako kirol-agintarien aurka jendaurrean egindako banakako protesta sumindu eta agerikoak.

m) Proba, norgehiagoka edo lehiaketa baino lehenago, bitartean eta ondoren ordena aztora ez dadin beharrezko prebentzio-neurri guztiak ez hartzea, arau-hauste oso larritzat jo ez baldin badira.

n) Kirol Diziplina eta Lehiaketako Federazio Batzordeari zuzenduta gaitzespenak, men ez egiteak edo errespeturik gabeko adierazpenak gauzatzea, ahozkoak nahiz idatzizkoak.

18. artikulua.- Arau-hauste arinak.

Arau-hauste arintzat hartuko dira argi eta garbi kirol-arauen aurkako jokabide oso larritzat eta larritzat jotako kalifikazioa ez duten jokabideak.

Nolanahi ere, arau-hauste arinak izango dira ondorengo hauek:

a) Epailerei, arbitroei, teknikariei, zuzendaritzetako kideei eta gainerako kirol-agintaritzetako kideei, horiek beren eginkizunak betetzen ari direnean, adierazitako oharrak, hutsegite arin bat aditzera emateko modukoak direnak. Bereziki, halakotzat hartuko dira EIF-FVN Kirol Diziplinako eta Lehiaketako Federazio Batzordeari zuzendutako deskalifikazioak, men ez egitea edo hitzez edo idatziz egindako adierazpen errespetugabeak, betiere baldin eta arau-hauste larritzat jotzeko modukoak ez badira.

b) Jendearekiko, jokalaria kideekiko eta menpeko jendearekiko hutsegite arina.

c) Epailerek, arbitroek, teknikariek, zuzendariak edo zuzendaritzetako kideek beren eginkizunak gauzatzen ari direnean emandako aginduak eta jarraibideak betetzeko jarrera pasiboa azaltzea.

d) Ekipamenduak, lokal sozialak, kirol-instalazioak eta bestelako baliabide materialak iraunarazteko eta zaintzeko garaian axolagabekeriak jokatzea.

e) Kirol arloko arauak edo aginduak ez betetzea dakarten egintzak eta ez-egiteak, arrazoitu daitekeen arreta galtzeagatik edo zabarkeriagatik.

f) Aurreko artikuluetan tipifikatuta ez dauden kirol-modalitate bakoitzeko lehiaketen erregelamenduetan edo bakoitzari dagokion lehiaketako araudi/zirkularretan jasota daudenak.

g) Proba, norgehiagoka edo lehiaketa jokatu baino lehenago, jokatu bitartean eta jokatu ondoren ordena ez aztoratzeko beharrezkoak diren prebentzio-neurri guztiak ez hartzea, arau-hauste larria edo oso larria ez denean.

19. artikulua.- Dopinarekin lotutako arau-hauste espezifikoak.

Dopinarekin lotutako alderdi guztiak Euskadiko Igeriketa Federazioaren Dopinaren Aurkako Araudian jasota daude.

2. ATALA

Zehapenak

19. artikulua.- Arau-hauste arrunt oso larriengatik ezarritako zehapenak.

Arau-hauste arrunt oso larriak eginez gero, honako zehapen hauek ezarriko dira:

a) 3.000 euro baino gehiagoko eta 30.000 euro baino gutxiagoko isunak.

b) Sailkapenean puntuak edo probak galtzea edo deskalifikatzea edo norgehiagoka galtzea.

- c) Kategoria edo maila galtzea edo jaistea.
- d) Kirol arloko proba, partida edo lehiaketa ateak itxita jokatu beharra.
- e) Kirol arloko probak, partidak edo lehiaketak jokatu diren lekuetara sartzeko debekua, gehienez ere 5 urterako epean.
- f) Auziko kirol-elkarteko bazkide moduan arauen arabera dagozkion eskubideak behin betiko galtzea, Kirol Sozietate Anonimo baten akziodun izateari atxikita doazen eskubideak izan ezik (eta Legeak arlo horri dagokionez aurreikusita izan ditzakeen salbuespenak salbuespen).
- g) Kirol-esparrua ixtea, lau neurketa edo probatik denboraldi oso bateko epealdi batean zehar.
- h) Kirol-antolakuntzan karguak betetzeko gaitasunik gabe uztea edo federazio-lizentzia aldi baterako etetea edo kentzea, bi urtetik bost urtera bitarteko epean, egindako arau-hausteari dagokion proportzioan.
- i) Kirol-antolakuntzan karguak betetzeko betiko gaitasungabetzea edo federazio-lizentzia kentzea. Aparteko larritasuna duten arau-hausteak behin baino gehiagotan egiteagatik soilik erabaki ahal izango da zehapen hori, salbuespen gisa.

20. artikulua.- Zuzendaritzetako kideen arau-hauste oso larriengatik ezarritako zehapenak.

Erregelamendu honetako 16. artikuluan tipifikatutako arau-hauste oso larriak egiteagatik, honako zehapen hauek ezarri ahal izango dira:

- a) Ohartarazte publikoa.

Zehapen hori ezartzea egokituko da ondorengo kasu hauetan:

1.- 16. artikuluko a) idatz-zatian aurreikusitako arau-haustea egiteagatik.

2.- 16. artikuluko c) idatz-zatian aurreikusitako arau-haustea egiteagatik, baldin eta erabilera okerra ez bada dagokion erakundearen urteko aurrekontu osoaren %1a baino handiagoa.

- b) Bi hilabetetik urtebetara bitarteko aldi baterako gaitasungabetzea.

Zehapen hori ezartzea egokituko da ondorengo kasu hauetan:

1.- 16. artikuluko a) idatz-zatian aurreikusitako arau-haustea egiteagatik, ez-betetzea kasu nabarmen oso larrietan gertatzen denean, aldez aurretik eskumena dagokion kirol-diziplinako organoak horretarako errekerimendu formala eginda.

2.- Nolanahi ere, elkartekideen eskubide subjektiboak murriztea eragiten duten ez-betetzeak hartuko dira halakotzat.

3.- 16. artikuluko b) idatz-zatian aurreikusitako arau-haustea egiteagatik.

4.- 16. artikuluko c) idatz-zatian aurreikusitako arau-haustea egiteagatik, bai behar ez bezala erabiltzeak EIF-FVNren urteko aurrekontu osoaren %1a gainditu duenean, bai okerra berregitearen larrigarria gauzatu denean.

C) Kargutik kentzea.

Zehapen hori ezartzea egokituko da ondorengo kasu hauetan:

1.- 16. artikuluko a) idatz-zatian aurreikusitako arau-haustea egiteagatik, okerra berregitearen larrigarria gauzatu denean, kasu honetan arau-haustea egindako denboraldi berari dagokiona.

2.- 16. artikuluko c) idatz-zatian aurreikusitako arau-haustea egiteagatik, erabilera okerra auziko erakundearen urteko aurrekontu osoaren %1a baino handiagoa denean, eta, gainera, okerra berregitearen larrigarria hauteman denean.

21. artikulua.- Arau-hauste larriengatik ezarritako zehapenak.

Honako Erregelamendu honetako 17. artikuluan tipifikatutako arau-haustea egiteagatik, ondorengo zehapen hauek ezarri ahal izango dira:

a) Ohartarazte publikoa

b) 600 eurotik 3.000 eurora bitarteko isuna.

c) Saillapenean puntuak edo probak galtzea edo deskalifikatzea edo norgehiagoka galtzea.

d) Kirol-barrutia ixtea gehienez hiru probatan edo norgehiagokatan edo bi hilabetez zehar.

e) Elkartekideari dagozkion eskubideak kentzea hilabete batetik bi urtera bitarteko epean.

f) Karguak betetzeko gaitasunik gabe uztea, federazio-lizentzia etetea edo kentzea, edo Kluben elkarrekin gaikuntza baliokidea ematea, hilabetetik bi urtera bitarteko epean, edo denboraldi berean lau neurketa edo proba gehiagokoa.

22. artikulua.- Arau-hauste arinengatik ezarritako zehapenak.

Arau-hauste arrunt arinak eginez gero, honako zehapen hauek ezarriko dira:

- a) Ohartaraztea.
- b) 600 eurora bitarteko isuna.
- c) Karguak betetzeko gaitasunik gabe uztea edo beste neurketa edo proba batzuk etetea, gehienez ere hilabete batez.

23. artikulua.- Zehapenak zehazteko eta ezartzeko arau komunak.

1.- Diziplina-organoek bidezkoenak iruditzen zaizkien zehapenak ezarri ahal izango dituzte, auzi bakoitzeko arau-hausterako aurreikusita dauden arauen artean, edo baita hain larriak ez diren arau-hausteetarako aurreikusitako arauen artean ere, egitateen izaeraren, erantzukizun mailaren eta inguruabar aringarri edo larrigarrien arabera mailakatuz.

Diziplina-organoek, nork bere diziplina-ahalmena gauzatzean, kontuan hartuko dute EIF-FVNko kirol-diziplina bakoitzeko Lehiaketa Erregelamenduetan edo lehiaketa bakoitzeko araudi/zirkularretan ezarrita dagoena.

Bi inguruabar larrigarri edo gehiago eta aringarri bakar bat ere ez egoteak zehapena gehieneko graduan aplikatzea eragingo du; era berean, bi aringarri edo aringarri oso kualifikatu bat eta batere larrigarririk ez izateak zehapena gutxieneko graduan aplikatzea eragingo du.

2- Etenaraztea izan daiteke neurketa edo proba kopuru jakin baterako, edo denbora-tarte jakin batzuetarako:

- a) Partidak edo probak etenaraztetzat joko da muga moduan denboraldiko lehiaketen barruan dagoen neurketa batetik neurketa guztiak bere baitan hartuta dituen, betiere zehapena jaso duen kategoriaren barruan.

Partida edo proba kopuru jakin bat bertan behera utziz gero, debekatuta izango da jokalaria-zerrendan sartzea hainbat neurketa edo proba ofizialetan, Espainiakoetan edo nazioartekoetan, epaia eman osteko egunetan, zehapeneko eguna bera barnean dela, eta lehiaketako egutegi ofizialetan adierazita dagoen hurrenkeraren arabera, nahiz eta ez egin hasiera batean programatutako egunean eta ondoren jokatzeko adierazita zeuden beste neurketa edo proba batzuk jokatu gero, dena delako edozein arrazoiengatik, hala nola partida edo probaren bat atzeratzea edo bertan behera uztea, egutegia ofizialki aldatzea izan ezik.

Baldin eta zehapenean jasotzen diren partiden edo proben kopurua denboraldiaren amaierarako falta direnak baino handiagoa bada, neurketa edo proba horiek hurrengo denboraldikoekin osatuko dira. Etenaldian sartzen diren probak edo norgehiagokak kirolariak hurrengo denboraldian parte hartzen duen kategorian utzi beharko dira jokatu gabe, nahiz eta ordurako zigortua kategoriaz aldatua izan.

b) Denbora-tarteen eten gisa ulertuko dira tarte zehatzen bati dagozkionak, zeinahi motatakoa izanda ere, eta tarte horretan ezingo dute proba edo topaketan parte hartu, eta ez dira zenbatuko lehiaketa ofizialik jokatzeko ez den hilabeteak.

Baldin eta bete beharreko etena dagokion denboraldia baino luzeagoa balitz, zenbatu beharreko aldia hurrengo lehiaketa ofiziala hasten den unean hasiko litzateke berriro abian.

c) Baldin eta lehiaketa ofizialaren hasieran lizentziarik izenpetuko ez balu, etenaldiko epea klub berak edo beste batek beste lizentzia bat eskatuko lukeen unetik aurrera zenbatuko litzateke. Nola kasu batean, hala bestean, EIF-FVNk lizentzia atxikiko luke zehapena guztiz bete arte, lizentzia berriaren kategoria edozein izanda ere, baldin eta emana izan bada.

Zigorra betetzen ari den bitartean, zehapena jaso duenak ezingo du kluba denboraldi berean aldatu.

Baldin eta kirolari bat deskalifikatu badute, hurrengo probak edo norgehiagokak ezingo dituela jokatu ulertu beharko da, Kirol Diziplinako eta Lehiaketako Federazio Batzordeak dagokion epaia ematen ez duen bitartean.

Behin-behineko etenaldi hori kontuan hartuko da ezartzen zaion zehapena betetzeko. Horrelako kasuetan, jokalaria zerrendan bidegabe sartu dela iritziko diote edo bidegabe esku hartu duela, Kirol Diziplinako eta Lehiaketako Federazio Batzordearen epairik, arau-hauste hori zehatuz edo ez, jaso ez arren. Hala ere, aipatutako Batzorde horrek baimena eman ahal izango du parte har dezan edo zerrendan sar dadin, komeni dela iritzten dionean edo alderdi batek eskatzen dionean, baldin eta beharrezko aurrekariak bildu badira eta epaia eman bada.

Etenaldi-zehapenak gaitasuna kendu egiten du zehatua izan den jarduerarako. Federazio-lizentzia kentzeko eta desgaitzeko zehapenak gaitasuna kendu egiten du, ezarri den jarduerarako ez ezik, bai eta EIF-FVNren modalitate espezifikoekin zerikusia duen beste edozein jardura garatzeko ere.

24. artikulua.- Diru-zehapenak.

Kirolariei, teknikariei, epailei edo arbitroei dirua ordaindu beharreko zehapenak ezarri ahal izango zaizkie, baldin eta horiek euren lanaren truke ordainsaria dirutan jasotzen badute soilik. Ondorio horietarako, isun-zehapena ezar daitekeela ulertuko da sari ekonomikoak dauzkan partida, txapelketa edo proba batean arau-haustea egin duten kirolariei. Zigorra ezingo da emandako saria baino handiagoa izan.

Diziplina-organoen iritziz, gertatu den arau-hauste motarekin bat datorren beste edozein zehapenekin batera ezarri ahal izango da isun-zehapena; zigorraren zenbatekoa, ezarritako gehieneko mugen barruan, zehapen-organismoak zehaztuko du, unean uneko inguruabarren arabera.

Isunak gehienez hamar egun balioduneko epean ordainduko dira, zehapena ezarri den egunean zenbatzen hasita, eta erabaki duen organoari ordaindu beharko zaizkio. EIF-FVNk bere kirol-helburuetara bideratuko du ordaindutako zenbatekoa.

Isunen ordainketa egokia den ordainagiriaren bidez egiaztatu beharko da, eta ez ordaintzea zehapena urratzea izango da.

25. artikulua.- Eraitzak aldatzea.

Egokiak izan daitezkeen diziplina-zehapenak alde batera utzita, Kirol Diziplinako eta Lehiaketako Federazio Batzordeak ahalmena izango du edozein prezioaren edo beldurrarazte ekintzaren edo akordio hutsen eragina jasan duen neurketa, proba edo lehiaketen eraitza aldatzeko, baldin eta arau-hausteak norgehiagokaren, probaren edo lehiaketaren ordena larriki aldaraztea eragin badu.

IV. KAPITULUA

Lehiaketa

26. artikulua.- Lehiaketa.

Izaera horretako federazio-organismoek berezkoak dituzten diziplina-ahalmenak baliatzea alde batera utzita, Kirol Diziplinako eta Lehiaketako Federazio Batzordeari honako eskumen hauek ere badagozkio:

a) Lehiaketa edo norgehiagoken data bertan bera uztea, aurreratzea edo atzeratzea, eta zehaztea, bai eta, egokia den heinean, lekua ere, baldin eta, arauzko arrazoiengatik, ezinbesteko arrazoiengatik edo agintaritza eskudunak hala aginduta, egutegi ofizialean edo kirol-instalazio propioetan ezarritako egunean jokatu ezin badira.

b) Proba edo neurketa bukatutzat, etentzat edo ez jokatutzat ematea erabakitzea, baldin eta edozein inguruabarren eraginez ohiko moduan amaitzea ezinezkoa izan bada, eta, proba edo topaketa hori jarraitzea edo berriz egitea erabakiz gero, jokaleku neutralean jokatuko den edo ez erabakitzea, eta, nolanahi ere, ateak itxita edo ikusleak sartzeko moduan.

c) Proba edo norgehiagoka baten eraitza aldatzea, baldin eta eraitza horretan arau-hauste oso larria gertatu bada, hau da, erregelamendu honen 26. artikuluan aipatzen den alde aurreko zehaztapenengatik gertatu bada; baldin eta jokalaria-zerrenda era bidegabean osatu bada, arau-hausteak norgehiagokaren, probaren edo lehiaketaren ordena larriki aldatzea badakar, eta, oro har, EIF-FVNko kirol-diziplinetako Lehiaketako Erregelamenduetan edo bakoitzari dagokion lehiaketako araudi/zirkularretan ezarrita dauden kasu guztietan.

d) Ordu uniforme bat ezartzea jardunaldi bereko probak edo norgehiagokak has daitezzen, baldin eta horietako emaitzek eragina izan badezakete sailkapen orokorrean eta behin betikoan.

e) Ofizioz edo interesatuak eskatuta, norgehiagoka edo lehiaketetarako federazio-ordezkariek izendatzea.

f) Azken sailkapenari eta sailkapenaren ondoriozko egoerei eragiten dien edozein gai ebaztea, ofizioz edo salaketa edo erreklamazio bidez ere bai, hala nola igoerak, jaitzierak, sustapenak, deskalifikazioak eta nazioarteko, estatuko edo lurraldeko beste lehiaketa batzuetan parte hartzeko eskubideak.

g) Azken sailkapenarekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik maila bakoitzean geratu diren postu hutsak nork bete behar dituen erabakitzea.

h) Norbere jurisdikzioari lotutako lehiaketari eta EIF-FVNko kirol-diziplina bakoitzaren Lehiaketa Erregelamenduak edo dagokion lehiaketako araudiak/zirkularrak betetzeari, aplikatzeari eta interpretatzeari eragiten dion guztia oro har.

II. TITULUA

DIZIPLINA-PROZEDURA

V. KAPITULUA

Diziplina-prozedura

1. ATALA

Printzipio orokorrak

27. artikulua.- Aplika daitekeen araudia.

Mota guztietako diziplinako arau-hausteengatik zehapenak ezartzeko prozedura kapitulu honetan xedatuta dagoenari jarraituz arautuko da, administrazioko eta zehapenetako zuzenbidearen arau eta printzipio orokorren arabera.

28. artikulua.- Erantzukizun penalen aldiberekotasuna.

1.- Diziplina-organo eskudunek, ofizioz edo espedientearen izapidegileak hala eskatuta, Fiskaltzari jakinarazi beharko dizkiote delitu edo falta penal izaerakoak izan daitezkeen arau-haustekak.

2.- Kasu horretan, kirol-diziplinako organoek prozedura etetea erabakiko dute, tartean diren inguruabarren arabera, harik eta organoek auziko gertaerarako egokia den ebazpen judiziala emango duten arte.

Kasu jakin bakoitzean, diziplina-organoek kasu horretan gertatzen diren inguruabarrak baloratuko dituzte, kirol-diziplinako espediente etetea edo jarraitzea erabakitzeko, harik eta horiekikoa ebatzi eta, kasuari hala baldin badagokio, beharrezko zehapenak ezarri arte.

3.- Baldin eta prozedura etetea erabaki bada, kautela-neurriak hartu ahal izango dira, alderdi interesdun guztiei jakinarazitako probidentzia bitartez.

Artikulu honetan aurreikusita dauden arrazoiengatik diziplina-prozedura etenda dagoen bitartean, auziari dagokion arau-haustea ez da preskribatuko. Baldin eta diziplina-espediente ez bada berriro hasten prozedura penalaria amaiera ematen dion ebazpen judizial irmoa eman eta hurrengo bi hilabeteetan, orduan bakarrik egingo da prozedura hori.

29. artikulua.- Prozeduran interesdunak direnak.

Kirol-diziplinako prozedura bat gauzatzeak eragin ahal dien eskubide edo bidezko interesak dituen edozein pertsona edo erakundek aurkeztu ahal izango du bere burua prozedura horretan, eta, harrez geroztik, interesdunaren izaera izango du, jakinarazpenak jasotzeko nahiz proba proposatzeko eta praktikatzeko.

Prozeduran euren burua aurkeztu duten interesdunek pertsona fisiko bat izendatu ahal izango dute, prozeduran lagundu eta ordezkari ditzan, bai eta haren helbidea adierazi dezaten ere, jakinarazpenak eta errekerimenduak jaso ahal izateko.

30. artikulua.- Zehapenak erregistratzea.

EIF-FVNk, Kirol Diziplinako eta Lehiaketako Federazio Batzordearen Idazkaritza bitarteko hartuta, Zehapenen Erregistro bat gauzatuko du, besteak beste, arau-hausteen eta zehapenen erantzukizuna eta preskripzioa aldatzeko kausarik izan ote daitekeen zehazteko.

Diziplina-organoek ezarriko dituzten zehapenen berri eman beharko diote EIF-FVNri, aurreko paragrafoan aurreikusitako ondorioetarako.

2. ATALA

Prozeduretako izapideak egiteko eta zehapenak ezartzeko organo eskudunak

31. artikulua.- Epailleak eta arbitroak eta zuzendari teknikoak.

Epaille edo arbitro eta zuzendari tekniko jaun-andreek izango dute jokoaren edo lehiaketaren arau-ekiko arau-hauste arinak egiteagatik zehapenak ezartzeko eskumena, arau horiek garatzen diren bitartean, bai eta kirol-modalitate bakoitzeko Lehiaketa Erregelamenduetan edo 18. artikuluko f) idatz-zatian aipatutako lehiaketa-araudi/zirkularretan tipifikatutako arau-hauste arinengatik ere; kasu horretan, EIF-FVN erakundearen diziiplina-organo gisa jardungo du.

Zehapen horiek «in situ» ezarri ahal izango dira, inolako izapiderik egin beharrik gabe, eta berehala betearaztekoak izango dira. Nolanahi ere, interesdunak eskubidea izango du Kirol Diziplinako eta Lehiaketako Federazio Batzordean errekurtsioa aurkezteko, zehapena jaso eta gehienez ere bi egun balioduneko epean, edozein modu frogagarritan, eta aurreko epea amaitu eta gehienez ere bi egun balioduneko epean ebatziko da.

Nolanahi ere den, epaileek eta/edo arbitroek izenpetutako aktak eta horietako deklarazioak, argibideak, erantsitako txostenak edo zabalitzeak egiazkotzat joko dira, akats material nabarmenik izan ezean, eta hori zuzenbidean onartutako edozein bideren bitartez egiaztatu ahal izango da.

32. artikulua.- EIF-FVN.

EIF-FVNk zuzeneko eskumena izango du arau-hauste guztien ardura bere gain hartzeko, baldin eta arau-hauste horiek zehatzeko ahalmena epaile edo arbitroen eskuetara berariaz eskuordetuta ez badago.

33. artikulua.- Eskumen funtzionalak esleitzea.

EIF-FVNk diziiplina-ahala izango du arau-hausteen berri izateko, espedienteak hasarazteko, horietako izapidegilea eta idazkaria izendatzeko eta zehapenak ezarri eta betearazteko, honako Erregelamendu honen 32. artikuluan aurreikusitakoan izan ezik, Kirol Diziplinako eta Lehiaketako Federazio Batzordearen bitartez.

Batzorde horrek, egokia baldin bada, EIF-FVNri ebatzea dagokion bigarren auzialdiaz arduratzeko eskumena ere izango du.

34. artikulua.- Bateriaezintasunak.

Baldin eta gai jakin baten berri hurrenez hurren elkarren jarraian izan dezaketen bi diziiplina-organo edo gehiago badaude, pertsona bera organo horietako bateko partaide izango da soilik, ez organo gehiagotakoa.

3. ATALA

Prozedura izapidetzea

35. artikulua.- Prozedura hastea.

Prozedura Kirol Diziplinako eta Lehiaketako Federazio Batzordearen probidentzia bidez hasiko da, ofizioz, interesdunak eskatuta edo Kirol Diziplinako Euskal Batzordeak eskatuta. Ofizioz hasi ahal izango da, organoaren beraren ekimenez edo salaketa arrazoituaren bidez.

36. artikulua.- Kautelako neurriak.

Prozedura hasitakoan eta proportzionaltasun-printzipioari jarraituz, Federazio Batzordeak egokitzen jotzen dituen behin-behineko neurriak hartu ahal izango ditu, eman ahal den ebazpenaren eraginkortasuna ziurtatzeko.

Behin-behineko neurriak prozedurako edozein unetan hartu ahal izango dira, ofizioz edo izapidegilearen mozio arrazoituaren bidez. Neurriak hartzeko erabakia behar bezala arrazoitu beharko da.

Kalte konponezinak eragin ditzakeen behin-behineko neurririk ezin izango da hartu.

37. artikulua.- Espedienteak metatzea.

Diziplina-organoek, ofizioz edo interesdunak hala eskatuta, espedienteak metatzea erabakitzeko aukera izango dute, baldin eta identitate edo analogia arrazoizkoa eta nahikoa, subjektiboa edo objektiboa gertatzen bada, eta inguruabar horiek izapidetzea eta ebaztea komeni dela adierazten badute.

Metatze-probidentzia prozedurako interesdun jaun-andreei jakinaraziko zaie.

38. artikulua.- Prozedura motak.

Jokoaren edo lehiaketaren arauen aurkako arau-hauste arinak, jokoa, proba edo lehiaketa egiten ari den bitartean epaile, arbitro edo zuzendari tekniko jaun-andreek zehapena bertatik bertara ezarri dieten kasuetan, honako Erregelamendu honen 32. artikuluan aurreikusitakoaren arabera izapidetuko dira prozedurari jarraituta.

Jokoaren edo lehiaketaren arauak hausten dituzten gainerako gorabeherak atal honetan aurreikusitako prozedura arruntaren arabera zehatuko dira.

Kirol-arau orokorren aurkako arau-hauste oro honako Erregelamendu honen 40. artikuluan aurreikusitako ezohiko prozeduraren arabera zehatuko da.

39. artikulua.- Ohiko prozedura.

1.- Ohiko prozedura aplikatu ahal izango da jokoaren edo lehiaketaren arauak hausteagatik zehapenak epaitzeko eta, egokia den heinean, ezartzeko; lehiaketaren garapen normala ziurtatuko du, bermatuz bai interesdunei entzuteko izapidea eta bai errekurtsua jartzeko eskubidea.

2.- Honako arau hauek bete beharko ditu:

a) Ohiko prozedura probidentzia bidez hasiko da, Kirol Diziplinako eta Lehiaketako Federazio Batzordearen erabakiz. Batzorde horrek izapidegile andrea edo jauna izendatu ahal izango du, baldin eta kasuaren ezaugarriengatik haren izendapena komeni dela erabaki bada, bai eta idazkaria ere. Idazkariak espedientearen izapideak egiten lagunduko dio izapidegile andreari edo jaunari.

Izapidegile andrea edo jauna izateko izendapena, egokia den neurrian, eta idazkari andrea edo jauna izateko izendapena, adinez nagusi den eta behar besteko ezagutza duen edozein pertsonak jaso ahal izango du: Kirol Diziplinako eta Lehiaketako Federazio Batzordeko edozein kide izendatu ahal izango da izapidegile, baina, hori horrela baldin bada, ez du bileretan parte hartuko eta ez du haietan botorik emango izapidetutako espedientearen auzi bakoitzari dagokion zehapena ezartzea aztergai denean.

Prozedura ofizioz hasiko da, Federazio Batzordearen beraren ekimenez edo salaketa arrazoituaren bidez.

b) Izapidegile andrearen edo jaunaren eta idazkari andrearen edo jaunaren abstentzioa eta ezespena ezohiko prozeduran horri buruz xedatuta dagoenaren arabera arautuko da. Ezesteko edo errekusatzeko eskubidea gehienez hiru eguneko epean gauzatu beharko da, izendapenaren berri izan eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

c) Espedientearen hasiera eta, hala badagokio, izapidegile andrea edo jauna izendatzea eta, egokia den heinean, idazkari andrea edo jauna izendatzea idatziz jakinaraziko zaizkio interesdun andreari edo jaunari, auzian egotzi zaizkion egitateekin batera.

d) Nahitaezko entzunaldi-izapidea bete ahal izateko, interesdunak bi egun balioduneko epea izango du, jakinarazpena egiten denetik zenbatzen hasita, bere interesak defendatzeko egoki iritzitako alegazioak egiteko eta eskatzen duen eta kasuarekin zerikusia duen froga proposatu eta praktikatzeko. Hori guztia idatziz bidali beharko zaio Kirol Diziplinako eta Lehiaketako Federazio Batzordeari.

Adierazitako epea beste hamar egunez luzatu ahal izango da, gehienez ere, Kirol Diziplinako eta Lehiaketako Federazio Batzordearen erabakiz, ofizioz edo izapidegile andre-jaunak edo interesdunak eskatuta, aurkeztu beharreko probaren bolumenak edo konplexutasunak hori egitea komeni dela erakutsi duenean.

e) Proban edo neurketan zehar egindako arau-hausteen kasuan, horiei erantsitako akta edo txostenetan egoki jasota baldin badaude, entzunaldi-izapidean ez da beharrezkoa izango diziplina-organoak aldeztu aurretik errekerimendurik egitea, ez eta jakinarazpenik,

idazkirik edo probidentziarik bidaltzea ere. Interesdunek, egokia iruditzen baldin bazaie, agiri horien edukiari edo norgehiagokari edo probari berari buruz egokitzen jotzen dituzten alegazioak edo adierazpenak zuzenean aurkeztu beharko dituzte interesdunaren aurrean, eta, egokia den heinean, auziari dagozkion frogak aurkeztu beharko dituzte, egutegiko hiru eguneko epearen barruan, kasuan kasuko norgehiagokaren edo probaren egunetik aurrera zenbatzen hasita. Une horretan, Kirol Diziplinako eta Lehiaketako Federazio Batzordeko Idazkaritzan aurkeztu beharko dira erreklamazioak; igandez jokatzen diren norgehiagokak baldin badira, epe hori egutegiko bi egunetara murriztuko da; beste horrenbestean, ustezko jokalaria-zerrenda desegokiak osatzeagatik edo beste edozein motako gorabeherengatik aurkez daitezkeen erreklamazioak ere aurkeztu egin beharko dira, eta, hori hala gertatu arren, partidako emaitza automatikoki baliozkotuta geldituko litzateke, baldin eta epe horren barruan aurkeztuko ez balira.

f) Izapidegile andreak edo jaunak, baldin eta halakorik balego, eginbide egokiak gauzatzea aginduko luke, egitateak zehazteko eta egiaztatzeke, bai eta zeha daitezkeen arau-hausteak finkatzeko ere.

g) Aurkeztuko diren frogak motak eta horiek praktikatzeko modua administrazio-prozedurako legeetan eta prozesu erkideetan aurreikusita dagoenaren arabera arautuko dira.

h) Alegazioak eta frogak aurkezteko epea edo horien luzapena amaitu ondoren, izapidegile andreak edo jaunak, baldin eta halakorik badago, egindako guztia helaraziko dio Kirol Diziplinako eta Lehiaketako Federazio Batzordeari, bere txostenarekin eta gomendioarekin batera, eta hark izapide gehiagorik gabe ebatziko du hiru egun balioduneko epe luzaezinean.

Baldin eta izapidegile andrerik edo jaunik ez balego, Kirol Diziplinako eta Lehiaketako Federazio Batzordeak ebatziko luke zuzenean, adierazitako epean.

i) Edonola ere, alegazioak eta frogak aurkezteko epearen barruan, ebazpena eman aurretik, izapidegile andreak edo jaunak eta Kirol Diziplinako eta Lehiaketako Federazio Batzordeak aurrez aurre entzun dezatela eskatu ahal izango du interesdunak, eta agerraldiaren emaitza jasota utziko da espedienteari erantsiko zaion aktan.

j) Inputatuaz bestelako interesdun jaun-andreak edozein unetan agertu ahal izango dira espedienteetan, harik eta frogak eta alegazioak aurkezteko epea amaitzen diren arte, eta egindakoaren berri emango zaie, eurenak proposatu eta egin ahal izan ditzaten; horrek ez du esan nahiko, inola ere, egokiak diren izapideetarako epeak luzatzen ariko direnik.

40. artikulua.- Ezohiko prozedura.

a) Ezohiko prozedura kirol-arau orokorrak hausteagatik ezarritako zehapenak epaitzeko eta, egokia baldin bada, ezartzeko aplikatuko da, eta legeria orokorreko printzipio eta arauen arabera, Kirol Diziplinari buruzko Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika

Sailaren 1989ko urtarrilaren 10eko 7/1989 Dekretuan ezarrita dagoenera eta honako Erregelamendu honetan jasota dauden xedapenetara egokituko da.

b) Prozedura Kirol Diziplinako eta Lehiaketako Federazio Batzordearen probidentzia bidez hasiko da, ofizioz, interesdunak eskatuta edo Kirol Diziplinako Euskal Batzordeak eskatuta. Ofizioz hasi ahal izango da, organoaren beraren ekimenez edo salaketa arrazoituaren bidez.

c) Horretarako, ustezko arau-hauste baten berri izatean, espedientea hasteko Kirol Diziplinako eta Lehiaketako Federazio Batzordeak informazio erreserbatua bideratzea erabaki ahal izango du, espedientea hastea edo, hala badagokio, jarduketak artxibatzea erabakiko duen probidentzia eman aurretik.

d) Espedienteari hasiera emango dion probidentziak izapidegile andrearen edo jaunaren izendapena jasoko du. Izapidegile horrek Zuzenbidean lizentziaduna izan beharko du, eta haren ardura izango da probidentzia izapidetzea.

e) Egokitzen jotzen den kasuetan, espedientea izapidetzean izapidegile andreari edo jaunari lagunduko dion idazkari andrearen edo jaunaren izendapena ere jasoko du probidentziak.

f) Hasierako probidentzia ezarritako erregistroetan inskribatuko da, honako Erregelamendu honen 31. artikuluan aurreikusita dagoenaren arabera, eta arrazoitu egingo da.

g) Izapidegile andreari edo jaunari eta, hala badagokio, idazkari andreari edo jaunari, administrazio-prozedura erkiderako Espainiako legerian aurreikusitako abstenitzeko eta ezesteko arrazoiak aplikatuko zaizkie.

h) Interesdunek ezesteko eskubidea egikaritu ahal izango dute hiru egun balioduneko epean, izendatzeko probidentziaren berri izan eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, hori eman duen organoaren aurrean, eta organo horrek hiru eguneko epean ebatzi beharko du.

i) Emandako ebazpenen aurka ezin izango da errekurtsorik aurkeztu, hargatik eragotzi gabe ezestea alegatzeko aukera, prozedura amaitzen duen egintzaren aurka administrazio-edo jurisdikzio-errekurtsioa aurkeztean, dagokionaren arabera.

j) Izapidegile andreak edo jaunak eginbide egokiak gauzatzeko aginduko du egitateak zehazteko eta egiaztatzeke, bai eta zeha daitezkeen arau-haustek finkatzeko ere.

k) Prozedurarako garrantzitsuak diren egitateak edozein frogabideren bidez egiaztatu ahal izango dira, behin izapidegile andreak edo jaunak froga-fasea irekitzea erabakitzen duenean. Fase horrek ez du hamabost egun baliodun baino gehiago iraungo, ezta bost baino gutxiago ere, eta interesdunei behar besteko aurrerapenez jakinaraziko zaie noiz eta non egingo den.

l) Interesdunek edozein unetan proposatu ahal izango dute, froga-fasea hasi aurretik, edozein froga egitea edo espedientea egoki eta zuzen ebazteko interesgarriak diren frogak zuzenean aurkeztea.

Interesdunek proposatutako froga esanbidez edo isilbidez ukatzearen aurka, erreklamazioa aurkeztu ahal izango diote Kirol Diziplinako eta Lehiaketako Federazio Batzordeari, hiru egun balioduneko epean. Batzorde horrek beste hiru eguneko epean eman beharko du erabakia. Erreklamazioa aurkezteak ez du inola ere espedientearen izapidetzea geldiaraziko.

m) Egindako jarduketak ikusita, eta prozedura hasi eta hilabeteko epean gehienez ere, izapidegile andreak edo jaunak artxibatzea proposatuko du edo dagokion kargu-orria egingo du, eta bertan jasoko ditu egozten diren egitateak, auziaren barruan sartuta dauden inguruabarrak eta ustezko arau-hausteak, bai eta aplikatu daitezkeen zehapenak ere.

Izapidegile andreak edo jaunak, justifikatutako arrazoiengatik, aipatutako epea luzatzeko eskatu ahal izango dio Kirol Diziplinako eta Lehiaketako Federazio Batzordeari.

n) Kargu-orrian, izapidegile andreak edo jaunak ebazpen-proposamen bat aurkeztuko du, eta interesdunei jakinaraziko zaie, gehienez ere hamar egun balioduneko epean beren eskubideak edo interesak defendatzeko egoki iritzitako alegazioak aurkez ditzaten.

Era berean, kargu-orrian, izapidegile andreak edo jaunak proposatu beharko du behin-behineko neurriak mantentzea edo kentzea, hala badagokio.

o) Aurreko paragrafoan adierazitako epea igaro ondoren, izapidegile andreak edo jaunak, beste izapidetik egin gabe, Kirol Diziplinako eta Lehiaketako Federazio Batzordeari helaraziko dio espedientea, eta, egokia baldin bada, aurkeztutako alegazioak gehituko zaizkio.

p) Kirol Diziplinako eta Lehiaketako Federazio Batzordearen ebazpenak amaiera ematen dio kirol-diziplinako espedienteari, eta gehienez ere hamar egun balioduneko epean eman beharko da, izapidegile andreak edo jaunak espedientea aurkeztu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

4. ATALA

Jakinarazpenak, ebazpenak eta errekursoak

41. artikulua.- Jakinarazpenak.

Prozeduran interesa dutenei eragiten dien probidentzia edo ebazpen oro ahalik eta lasterren jakinaraziko zaie interesdun horiei, gehienez ere hamar egun balioduneko mugaren barruan.

Jakinarazpenak administrazio-prozedura erkidearen legerian aurreikusitakoaren arabera egingo dira. Komunikazio horiek posta, faxa, euskarri magnetikoa edo zuzenbidean baliozkoa den beste edozein bitarteko erabiliz egin ahal izango dira.

Jakinarazpenek ebazpenaren testu osoa jaso beharko dute, eta bertan adieraziko da behin betikoa den ala ez, zein erreklamazio edo errekurtsio aurkeztu behar diren, zein organori aurkeztu behar zaizkion eta zein epetan.

42. artikulua.- Komunikazio publikoak.

Jakinarazpen pertsonala gorabehera, zehapen-ebazpenak jendaurrean jakinaraztea erabaki ahal izango da, pertsonen ohorerako eta intimitaterako eskubidea errespetatuz, indarrean dagoen legeriaren arabera.

Hala ere, probidentziek eta ebazpenek ez dute interesdunentzat eraginik izango, harik eta jakinarazpen pertsonala egin arte, hurrengo paragrafoan aurreikutsita dauden kasuetan izan ezik.

Erregelamendu honen 22. artikuluan aurreikusitako zehapenen ondorioetarako, nahikoa izango da diziplina-organo eskudunaren berri emate publikoa, zehapena berehala betearaztekoa izan dadin. Ondoren, jakinarazpen pertsonala egin beharko da, eta jakinarazpen pertsonala egin ostean soilik zenbatuko dira erreklamazio eta errekurtsioetarako epeak.

43. artikulua.- Motibazioa

1.- Kirol-diziplinako prozeduretan emandako probidentziak eta ebazpenak arrazoitu egin beharko dira, eta interesdunei jakinarazi beharko zaizkie, adierazita erabakien edo akordioen edukia, bai eta kasu bakoitzean bidezkoak diren erreklamazioak edo errekurtsioak ere, horiek hartu eta hamabost eguneko gehieneko epean.

2.- Jakinarazpenak interesdunen helbidean edo egoitza sozialean egingo dira, gutun ziurtatuaren, telegramaren, telexaren edo beste edozein komunikabideren bitartez, interesdun horiek jakinarazpenak jaso dituztela egiaztatu ahal izan dadin.

3.- Erabakiaren edo ebazpenaren garrantziak edo ondorioak hala eskatzen duenean, diziplina-organoak edo hura atxikita dagoen asoziazioako edo federazioko instituzioak edo erakundeak, gainera, hura argitaratzea, zabaltzea edo jendaurrean jakinaraztea xedatu ahal izango du, betiere pertsonen ohorerako eta intimitaterako eskubidea errespetatuz, indarrean dagoen legediaren arabera.

44. artikulua.- Erreklamazioak aurkezteko epea.

1.- Baldin eta Erregelamendu honetan edo dagozkion estatutuetako edo arauetako xedapenetan ez bada berariaz erreklamatzeko edo errekurtsioa aurkezteko eperik ezartzen,

berariazko erabakiei edo ebazpenei dagokienez, interesdunek bost egun balioduneko epea izango dute erreklamazioak edo errekurtsioak aurkezteko, eta berariazko erabakirik edo ebazpenik ez baldin balego, hogeita hamar egun baliodunekoa.

2.- Aurreko zenbakian adierazitako epeak lehenengo egunean hasiko dira zenbatzen, erreklamatzeko edo errekurritzen den erabakia edo ebazpena jakinarazten den egunaren biharamunetik aurrera, eta bigarrena, berriz, artikuluko honetan xedatutakoaren arabera, erreklamazioa edo errekurtsioa ezetsitzat jo behar den egunaren biharamunetik aurrera.

3.- Aurreko zenbakietan xedatutakoaren ondorioetarako, baldin eta honako Erregelamendu honetan edo dagozkion estatutuak edo arauak xedapenetan berariaz eperik ezartzen ez bada, kirol-diziplinaren arloan aurkeztutako erreklamazioak edo errekurtsioak ezetsitzat edo ukatutzat joko dira aurkeztu zirenetik hiru hilabete igaro direnean, eta horrek ez du eragotziko organo eskudunak berariaz adierazitako erabakia edo ebazpena ematea.

45. artikulua.- Idatziz egindako erreklamazioak.

1.- Erreklamazioak edo errekurtsioak idatziz formalizatu eta aurkeztu beharko dira beti, erreklamazioak edo errekurtsioak ebazteko eskumena duen organoaren helbidean edo egoitzan, edo administrazio-prozedura orokorra arautzen duten xedapenetan aurreikusitako lekuetan.

2.- Erreklamazioak edo errekurtsioak gauzatzeko balio duten idazkietan honako hauek jaso beharko dira:

a) Erreklamatzailaren edo errekurtsogilearen identifikazio-datuak, eta kontuan interesa duten gainerakoenak ere bai, legitimazio aktiboa edo pasiboa justifikatuta.

b) Argi adierazi zer egintza, erabaki edo ebazpenen aurka erreklamatzeko edo errekurritzen den, eta azken bi kasuetan horien kopia bat aurkeztu, baldin eta adieraziak izan badira.

c) Erreklamazioa edo errekurtsioa eragin duten alegazioak eta horren oinarri diren oinarriak edo aginduak azaltzea.

d) Egokia baldin bada, praktikarako proposatu diren froga-eginbideak.

e) Eta formulatu diren uzien adierazpen konkretua eta zehatza.

Era berean, baldin eta bigarren instantzian edo hurrengoetan errekurtsioa aurkeztu bada, alde aurreko nahitaezko instantziak betetzen direla egiaztatu beharko da.

46. artikulua.- Errekurtsoak.

- 1.- Klubek eta elkarteek kirol-diziplinaren arloan hartutako erabakiak eta emandako ebazpenak bakoitzari dagokion lurraldeko federazio-antolakundearen aurrean errekurritu egin ahal izango dira.
- 2.- Lurraldeetako federazio-erakundeek emandako diziplina arloko erabakien eta ebazpenen aurka errekurtsua jarri ahal izango da EIF-FVN erakundean.
- 3.- Euskal federazioen diziplina arloko erabakiak eta ebazpenak Kirol Diziplinako Euskal Batzordearen aurrean errekurritu egin ahal izango dira.
- 4.- Kirol Diziplinako Euskal Batzordeak emandako erabakiek eta diziplina-ebazpenek administrazio-bidea agortzen dute, eta errekurtsua jarri ahal izango zaie aplikatzekoak diren jurisdikzio-arauen arabera.

47. artikulua.- Errekurtsoak ebaztea.

- 1.- Erreklamazioaren edo errekurtsuaren ebazpenak errekurritutako erabakia edo ebazpena berretsi, aldatu edo baliogabetuko du, eta aldaketaren bat gertatuz gero, ezin izango zaio interesdunari kalte handiagorik eragin baldin eta erreklamatzailerik edo errekurtsu-egile bakarra bada.
- 2.- Erreklamazio edo errekurtsu bat aztertu eta ebazteko eskumena duen organoak ahalmena izango du espedientean akats formala dagoen ala ez ofizioz hautemateko eta deklaratzeko; akatsik baldin balego, atzeraeragina agindu ahal izango luke irregulartasuna gertatu zen unera edo izapidera bitartean, eta berariaz adierazi beharko luke errekurtsuak ebazteko formula.

48. artikulua.- Ebazteko betebeharra.

Kirol-diziplinako organoetan aurkeztutako eskaerak edo erreklamazioak berariaz ebatzi beharko dira hamabost egun balioduneko epean, nola eta ez diren epe desberdinak ezartzen EIF-FVNko kirol-diziplinen lehiaketetako Erregelamenduetan edo dagokion lehiaketako araudi/zirkularretan, gatazka-motaren bat ebazteko.

Aipatutako hamabost eguneko epea igaro ostean, aipatu dugun salbuespenean izan ezik, berariazko ebazpenik eman ez baldin bada, ezetsizat joko dira.

Lehiaketaren inguruan Kirol Diziplinako eta Lehiaketako Federazio Batzordeari egin dakizkikeen kontsultak idatziz egin beharko dira, eta hogeit hamar egun balioduneko epean ebatziko dira.

50. artikulua. - Erregelamendu honetan jasotako araudia indarrean sartu ahal izateko, Eusko Jaurlaritzako Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak onetsi beharko du, eta Eusko Jaurlaritzako Kirol Erakundearen Erregistroan inskribatu beharko da.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengoa.- Honako Erregelamendu hau euskaraz eta gaztelaniaz argitaratuta dago. Baldin eta hizkuntza batean edo bestean argitaratutako erregelamenduaren artean bat ez etortzerik edo desberdintasunik badago, gaztelaniazko bertsioak izango du lehentasuna, jatorrizko bertsioa delako.



Javier Sáez Gómez
Presidente EIF-FVN Presidente

GIL
CRESPO
SANTIAGO

-

14598948C

Firmado
digitalmente por
GIL CRESPO
SANTIAGO -
14598948C
Fecha:
2021.12.28
11:59:14 +01'00'

Santiago Gil Crespo
Idazkaria EIF-FVN Secretario